

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresak ondo funtzionatu dezan hainbat jarduera ezberdinak egitea ezinbestekoa da. Konkretuki, gure enpresan garrantzitzuenetariko bat, **bezeroak ondo ezagutzea** izango litzateke. Horrela, **atentzio pertsonalizatua eskeiniko genieke** haien beharrian ezberdinak asetuz.

Mugikorreko **aplikazio bat sortuko dugu** bezeroei laguntza eskaintzeko; eta horretarako, **ezagutzaren gestioan eta etengabeko prestakuntzan oinarrituko gara**. Aplikazio honen bidez, gure bezeroekin kontaktuan jarriko gara. Etengabe **informazio berriztuko dugu**, bezeroei konfidantza handiagoa eskeintzeko eta aplikazioan egunero sartzeko gogoak izateko, ez delako - aurreko egunean bezalako informazioa inoiz egongo.

Gainera, aplikazio bat sortzean pentsatu behar den gauza oso garrantzitsu bat erabiltzeko erraza izatea da, hau da, pertsona guztiek, adinean sartu gabe, **uler dezaketen diseinu bat izatea**. Horretarako, sartzan zaren bakoitzean nola funtzionatzen duen azaltzen duen informazioa aterako zaizu. Baita, -guri buruzko informazioa aterako zaizu. Hala eta guztiz ere, telefono zenbaki bat egongo da atal horretan, arazoren bat izatekotan deitzeko. Telefonoaren zerbitzua erabilgarri egongo da goizeko 9:00etatik arratsaldeko ordu 14:00etara arte.

Hona hemen **gure aplikazioaren antolakuntza**:

1. Hauek izango dira gure aplikazio barruan eskainiko ditugun jarduerak:

1.1 Hasierako jarduera

.Erregistratu eta testa bete


Aplikazioan lehenengo aldiz sartzean datu batzuk bete behar izango dituzu, zure izenarekin, adinarekin, ... Hori guretzako informazio baliogarria izango da, pertsona horri buruz oinarritzko gauzak ezagutzeko. Horrez gain, test bat betetzeko agertuko zaizu. Hori bete ostean, zure psikologoa nor den agertuko zaizu. Adituak arlo ezberdinetan espezializatuta egongo direnez, zure erantzunen arabera zer gertatzen zaizun detektatuko dugu eta profesional bat esleituko zaizu. Datu guzti




horiek gordeko dira eta sartzen zaren bakoitzean beteta egongo dira, beraz, ez duzu zertan sartzen zaren bakoitzean bete behar.

1.2 Jarduera orokorrak


.Chat bat bezeroek beraien artean hitz egiteko.

Mugikorraren beheko ezkerreko aldean  sinboloa klikatuz gero chat batera eramango zaitu. Hor barruan atal ezberdinak egongo dira non talde orokor bat egongo den; eta horrez gain, zuk zure kontuarekin talde horretako edonorekin modu pribatuan hitz egin dezakezun. Hala ere, talde bat egin nahi izatekotan, nahi duzun pertsonekin egitea posible izango litzateke. Hori bai, aurrez komentatu dugun bezala, programa bat egongo da diziplina eta errespetua interakzio ezberdinetan kontrolatzeko.


.Gauza ezberdinak gomendatzeko atala

Behean ere sinbolo hau egongo da  . Hauxe klikatuz gero, orri batera eramango zaitu non, bideo, pelikula eta liburu gomendagarriak eskainiko dizkizun. Astero gomendio desberdinak eskainiko ditugu. Atal horren baitan ere, influenzerren bideoak agertuko dira, (aurrez banaketa eta komunikazio kanalean jarri dugun bezala publizitatearen truke izango dira bideoak).

.Informazio ezberdina

Sinbolo honetan  klikatuz gero, informazio anitza agertuko zaizu: link ezberdinak arazo bakoitzari buruzko informazioarekin, egunkarietik ateratako albiste batzuk, ... Atal honetan edonork eskegi dezake nahi duena, hau da, norbait interesgarria den zerbait eta langungarria izango litzateken zerbait dela uste badu, hor eskegi dezake besteek ikusteko. Eskegitzen dituzten albiste guztiak gure psikologoek ikuskatuko dituzte lehenago, filtro profesionala pasatu behrako dute geru aplikazioan txertatzeko.

.Psikologoekin hitz egiteko aukera chat edo deien bidez.


Irudi hau  sakatuz gero, beste orri batera eramango zaitu. Hor hiru atal ezberdin egongo dira: psikologoekin hitz egiteko, bideo dei batean sartzeko eta egutegi bat zure aurrez aurreko hitzorduen orduekin.



Aplikazioaren aparteko jarduerak:

.Hitzaldi ezberdinak gaixotasun mentalei buruz

Aplikazioaren goikaldean errenkada bat egongo da kolore gorritz non bertan - gure hizketaldien datak, lekuak, eta orduak adieraziko ditugun.



Egingo ditugun beste jarduera batzuk **hizketaldiak** izango dira, hainbat leku publikoetan eta beste hainbat lekutan. Udaletxeetara joango gara eta hor gai desberdinetako hitzaldiak egitea proposatuko diegu. Honen helburua jendeari gure aplikazioaz jakinaraztea, arazo ezberdinen informazioa ematea, laguntzea, ... izango litzateke. Ez dira hitzaldi guztiak berdinak izango, bakoitzak arlo ezberdin bat jorratuko du momentuaren eta tokiaren baitan. Horien datak, lekuak eta orduak gure aplikazioaren atal batean adieraziko dira, eta informazio horrekin bakoitak erabaki dezake joatea ala ez. Horra joatea dohainik izango da,

aplikazioa bezala, baina, kutxa bat jarriko dugu sarreran non nahi duenak bere aportazio ekonomikoa egin dezan. Diru hau negozioa aurrera eramateko erabiliko da. a- Gainera, - postu bat ere jarriko genuke gauza desberdinekin: kamisetak, pinak, estutxeak, ... (merchandising-a) gure logoarekin, nahi duenak erosteko eta diru aportazio txiki bat egiteko. Diru horrekin aplikazio aurreratuagoa egin eta eskaintza zabalduko genuke.

Gure azkeneko jarduera **propaganda egitea** izango litzateke. -Ahalik eta jende gehiagorengana hurbildu nahi dugu hasiera batean, gure aplikazioa gizarte osoak ezagutu dezan; horrela, beraien arazoetan laguntzeko prestutasuna erakutsiko diegu. Horregatik, oso garrantzitsua izango litzateke gure enpresaren propaganda ona egitea. Hori hainbat modu ezberdinetan egingo genuke, momentu/toki bakoitzaren arabera.